


ETXARRI-ARANATZ:

GERRA ZIBILEKO ERREPRESIO GOGORRA



Map data: ©2026 Google / Badihardugu Euskara Elkarte



testigantza eta
informazio gehiago
online mapan



Gerra Zibilaren hasieran hartu zuten nazionalek Etxarri-Aranatz. Herritarren artean nola bizi izan zen jaso nahi izan dugu ibilbide honetan.

Besteak beste, herriko giroa zein zen, zubia nola bota zuten, kuartel militarra non zegoen eta herritarrei eragindako errepresioa, lekukoek beraiek kontatua.

Gerrako Ahotsak
proiektuan jasotako
ahozko testigantzetan oinarritua.

Badihardugu
Deba Ibarreko Euskara Alkartia

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa Nagusia
Giza Eskubideen eta Oinarrizko
Historikoen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Derechos Humanos
y Memoria Histórica

ahotsak.eus
Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1 GERRAREN HASIERAN ZUBIA LEHERTU ZUTEN

Lekukoa: Vicente Miranda

Gerra Zibila hasi zenean Vicentek 10-11 urte zituen. Egun horretan, bazihoan aitarekin belarra biltzera, eta bidetik jende mordoa gogoratzen du makil eta sardeekin. Zubia nola lehertu nahi zuten gogoratzen du. Baita "toque de queda" delakoa nola jotzen zuten ere.



2 KUARTEL MILITARRA

Lekukoa: Asunción Razkin

Etxarrira ez zen gerra ailegatu, baina mugimendukoaren kuartela zegoen eta Irufeatik etortzen ziren soldaduak eskopetekin. Emakume batzuei ilea moztu zieten, eta gizon batzuk Urbasa aldera eraman zituzten. Andre asko senarrik gabe geratu ziren.



3 ABADAK ALTXAMENDUAREN ALDE ZEUDEN

Lekukoa: Manolo Campos

Apaizak mugimenduaren aldekoak ziren, eta beraiengatik jende asko hil zuten. Urtero joaten dira hildakoei omenaldia egitera Urbasara. Behin bat bizirik bota zuten, eta gainean graba kamioi bat bota zioten. Garai hartan, kontuz ibili behar ziren esaten zutenarekin.



4 GERRA GARAIO GIROA ETXARRI-ARANATZEN

Lekukoa: Jesus Amado Larraza

Gerra Zibilak Etxarrin giro ezin txarragoa jarri omen zuen. Ezin ikusiak eta mendekuak ugariak izan omen ziren. Halako herri txikia izanik ere 13 bat fusilamendu izan omen ziren. Emakume batzuei ilea moztu ere egin zieten.



5 ALKATEA ERREKETEEN KAPITAINA ZEN

Lekukoa: Manolo Campos

Gerra garaiko alkatea (Barandalla) erreketen kapitaina izan zen. Garai hartan, Etxarriko lau gizon eraman zituzten, eta hil egin zituzten. Mehatxuak egoten ziren. Etxarrin bi alde zeuden: karlistak eta errepublikanoak.



6 EMAKUMEEI ILEA MOZTEN ZIETEN

Lekukoa: Rafaela Ijurra

Guda garaian, eskolako leihotik ikusi zuten nazionalak nola moztzen zieten ilea hiru emakumeei, astoei mozteko guraizeekin. Simara ere bota zituzten gazte asko.



7 GORPUAK BIDE ERTZEAN BOTATA

Lekukoa: Antonia Mendiola

Jendea hil eta bide bazterretan uzten zuten. Utzubarrerako bidean bota zituzten batzuk. Errepublikaren denboran alkate izandakoa eta maistra bat hil zituzten. Lehenengo atxilotu egin zituzten, ez zituzten hil nahi, baina behartu egin zieten.



OTSOPORTILLOKO SIMA

Lekukoa: Bautista Barandalla

Herrian iritzi politiko ezberdinak zeuden, eta nahiko "pike" bazen. Bere etxean bertan bere aita errepublikanoa zen, eta honen anaia erreketea. Emakume batzuei ilea moztu eta akain-belarraren olio eman zieten, baita kartzelan sartu ere. Fusilatua ere sei edo zazpi izan ziren. Oraindik orain fusilatuen omenez urtero Otsoportillon egiten duten mezara joaten da Bautista.



testigantzak entzun

